"Los grupos municipales IRABAZI, EIBARKO EH BILDU y EIBARKO EAJ-PNV presentan la siguiente moción para su debate y votación en Pleno, relativa a la grabación y difusión mediante Internet de los plenos municipales.

JUSTIFICACIÓN

Politika gero eta urrunago sumatzen dute herritarrek, eta nabarmena da erakundeak ahalegina egin beharra sinesgarritasuna berreskuratzen, horrek ahalbidetuko baitu gizarte demokratiko baten funtzionamendurako ezinbestekoa den herritarren konfiantza. Udalbatzaren bilkuretara ez dira duela hainbat urte bezain beste herritar gerturatzen, baina Interneteko gizarte sareen bitartez gero eta agerikoagoa da interesa badagoela erakundeetan emandako eztabaiden berri izateko. Gaur egun, erreminta merkeak egon badaude Udalaren eskura, informazioa saretu eta herritarrengana helarazteko. Horregatik guztiagatik, IRABAZI, EIBARKO EH BILDU eta EIBARKO EAJ-PNV udal taldeek ondorengo MOZIO hau aurkezten dute:

Los ciudadanos sienten cada vez más alejada la política, y es evidente que las instituciones deben esforzarse en recuperar la credibilidad, ya que eso posibilitará la confianza ciudadana, imprescindible para el normal funcionamiento de una sociedad democrática. Ya no acuden a los plenos municipales tantos ciudadanos como lo hacían antes, pero a través de las redes sociales de Internet es cada vez más patente que existe interés en conocer los debates que se dan en el seno de las instituciones. A día de hoy existen herramientas al alcance del Ayuntamiento para difundir información y hacérsela llegar a los ciudadanos. Por todo ello, los grupos municipales IRABAZI, EIBARKO EH BILDU y EIBARKO EAJ-PNV presentan la siguiente MOCIÓN:

MOZIOA

Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio azter dezala, bi hilabeteko epean, bilkurak bideoan grabatu eta Interneten zuzenean zein bilkura ondorengo orduetan sareratzeko dauden aukera guztiak. Aukera horien baitan jaso ditzala udal langileek bere eginkizunen baitan har ditzaketen zereginak, elkarte batekin adosteko aukera zein enpresa bat kontratatzekoa, aukera horien guztien gastuak zehaztuz. Halaber, aukera horien berri eman diezaiela udal talde politikoei eta, adostasunik zabalena

MOCIÓN

El Pleno insta a la Junta de Gobierno a estudiar, en el plazo de dos meses, las posibilidades de grabar en vídeo y retransmitir la grabación en Internet, bien en directo o unas horas después de los plenos. Entre las opciones analizadas se recogerán las tareas que puedan ser asumidas por personal municipal, la opción de llegar a un convenio con una asociación o la contratación de una empresa, concretando los costes de dichas opciones. Asimismo, se insta a que in-

bilatuz, sistema egokiena abian jar dezala 2016. urteko lehen Udalbatzaren bilkura baino lehen."

forme de todas esas opciones a los grupos políticos municipales y, buscando el máximo consenso, ponga en marcha el sistema más adecuado antes del primer Pleno del año 2016."

Errasti jaunak hartu du hitza. Esan du neurri hau aurrerapauso bat izango litzatekeela gardentasunari begira, eta horrez gain, gizarteak berak eskatzen duen neurri bat dela.

Gaineratzen du aurrekontuen negoziazioetan bere Taldeak neurri hori aurrekontuetan islatzea eskatu duela, eta hainbat gairen inguruan akordio batera iritsi arren horretan ez zela akordiorik izan, eta poztu egiten direla orain gaiak aurrera egiten duela ikustean.

Interviene el señor Errasti para decir que esta medida sería un paso adelante en el tema de la transparencia, y además que es una medida que reclama la sociedad.

Añade que en las negociaciones de los presupuestos, su Grupo ha solicitado que se contemple esta medida, y que son varias las actuaciones sobre las que se ha llegado a un acuerdo, pero que en este no se llegó y que se alegran de que ahora salga adelante el tema.

Ondoren Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du lau hilabete igaro direla udal hauteskundeak izan zirenetik, ehun egun baino gehiago, eta balorazio bat egiteko ordua dela.

Mendicute jaunak jarraitu du esaten Gobernu Taldeak egin dituen jarduerak ikusita, beraiek ez dutela arrazoirik ikusten gardentasunaren alorrean egin diren ekintzak txalotzeko. Azkeneko udal osoko bilkuran, bere Taldeak, Bilduk eta Irabazik txosten bat eskatu zuten, hedabideetan

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que ha pasado cuatro meses desde las elecciones municipales, más de cien días, y que es hora de hacer una valoración.

Vistas las actuaciones del Equipo de Gobierno, continúa, no ven motivo para aplaudir las acciones llevadas a cabo en el tema de la transparencia. En el último Pleno, prosigue, su Grupo, Bildu e Irabazi solicitaron un informe que no se entregó hasta que hubo ruido en los me-

zarata atera zen arte, entregatu ez zen txostena. Horrek islatzen du, dio Mendicute jaunak, zein eratan ulertzen den udala eta erakunde publikoak: ez oso modu gardenean eta gertukoekiko paternalismoa erakutsiz. Gaur bertan, dio, IMESAren bozketan ere horixe ikusi da: paternalismoa, eta aitaren edo amaren laguntza izaten den bezala, Bilduren laguntza duena.

dios, lo cual refleja la forma en que se entiende al ayuntamiento, a las instituciones públicas: de forma no muy transparente y con paternalismo respecto a los más próximos, lo cual se ha visto hoy en la votación de IMESA, paternalismo que como al padre, o la madre, tiene la ayuda del Bildu.

Gaineratzen du Mendicute jaunak ehun egun igaro direla, eta oraindik beraiek ez dutela ezagutzen gobernu-taldearen inongo planik agintaldi honetarako; horregatik, EAJ-PNV, Bildu eta Irabazi taldeek dituzten planak aurrera eramaten saiatuko direla, baina ez dela horretan luzatuko, agintaldian zehar aurkezten eta eztabaidatzen joango direlako. Gaur, dio, aretoan ez dago hogei pertsonatik gora, eta bera seguru dagoela hogei baino gehiago direla gaur hemen tratatzen ari diren gaiak ikusteko interesa duten pertsonak, eta askok harriduraz ikusiko luketela Bilduk ematen duen botoa.

Añade que han pasado cien días y no conocen todavía ningún plan del equipo de gobierno en este tema para este mandato, y que por ello, los grupos PNV, Bildu e Irabazi tratarán de llevar adelante sus planes, en los que no se va a extender, pues a lo largo de la legislatura se presentarán y debatirán; pero que hoy hay en la sala no más de veinte personas y está seguro que son más de veinte personas las que tienen interés que en ver los temas que hoy se tratan, y que muchos verían con extrañeza lo que vota Bildu.

Segitu du esaten ahalegin bat egin behar dela hiritarrak erakundeetara gerturatzeko, eta horrek kostu ekonomiko bat duela jakin arren, lehenago edo geroago hartu behar den neurri bat denez, hobe lehen bait lehen hartzea.

Prosigue diciendo que hay que hacer un esfuerzo para acercar los ciudadanos a las instituciones, y que aunque ya sabe que tiene un coste económico; como es una medida que hay que adoptar tarde o temprano, mejor que se adopte cuanto antes.

Mendicute jaunak dio Bildu eta Irabazi Taldeei eskerrak eman nahi dizkiela mozioa izenpetzeko prest agertu direlako eta

Continúa diciendo que agradece a los grupos Bildu e Irabazi su disposición a firmar la moción y que no esperaba la

ez zuenez itxoiten Talde Sozialistaren jarrera hau, ez zutela beraiekin berbarik egin, eta horregatik barkamena eskatzen diela.

Ezusteko pozgarria izan da, dio Mendicute jaunak, alderdi Sozialistak ere gaian borondatea dutela ikustea, eta hortaz, aldeko botoa emango dutelakoan dago, eta hori aurretik eskertu nahi die.

Bere Udal Taldearen apustuak berretsi ditu: gardentasunaren alde, hiritarren parte-hartzearen alde eta horretarako erabil daitezkeen teknologia berrien alde eta, mozio honek dioena betez –onartuko delakoan baitago-, 2016. urtean zerbitzu hori martxan edukitzea espero duela.

Mendicute jaunak amaitu du bere mintzaldia Udal Gobernuari Udaleko gardentasunari aurre egiteko neurri gehiago hartzera hertsatuz, eta itzultzaile andreari barkamena eskatzen testu hau aurretik ez bidaltzearren, baita euskaraz esan duena ulertzeko zailtasuna duen zinegotziren bati ere.

disposición del grupo Socialista, por lo que no hablaron con ellos, y por lo que les pide perdón.

Ha sido una sorpresa agradable, prosigue, ver que el partido Socialista también tiene voluntad en el tema, por lo supone que votarán a favor, lo cual les agradece de antemano.

Reitera la apuesta de su Grupo municipal por la transparencia, por la participación ciudadana y por las nuevas tecnologías que pueden utilizarse para ello y espera que en cumplimiento de está moción, que espera se aprueba, en el 2016 se tenga en marcha este servicio.

Finaliza su intervención instando al Gobierno municipal a que adopte más medidas para afrontar la transparencia del Ayuntamiento y solicitando perdón a al señora traductora por no haberle enviado previamente este texto, así como a algún concejal que tenga dificultad para entender su intervención en euskera.

Alkate jaunak adierazi du batzuetan norberak ere ezustekoak hartzen dituela ez galdetzearren, eta gaur bigarren aldiz gertatu zaiola hori Mendicute jaunari.

Gaineratzen du bere Taldea dagoeneko lanean ari zela agintaldi hau hasi zenetik

El señor Alcalde manifiesta que a veces uno se lleva sorpresa por no preguntar y que es la segunda vez que esto le ocurre hoy al señor Mendicute.

Añade que su Grupo ya estaba trabajando desde comienzo de la legislatura

bertatik udal osoko bilkuran zuzenean emateko aukera lantzen.
Gardentasunari dagokionez, Alkate jaunak gaineratu du ez dutela inongo arazorik izan behar diren datu guztiak ematerakoan.
Egia da, dio Alkateak, aurreko udalbatzan ez zutela ikusten udal osoko bilkurak zuzenean emateko aukera hori gardetasun neurri bat bezala, beraien iritziz beste neurri batzuk zeudelako, askoz ere urgentzia gehiagokoak, Udalbatzarrak publikoak direlako, jasotzen diren aktak ere publikoak direlako, eta orain lortu nahi dena da erreminta berri horiekin gertuagoak izatea, baina gardenak izan, badira.
Amaitzeko Alkate jaunak esan du bere Taldeak aldeko botoa emango duela, eta urte honetan bertan egin baliteke egingo dela, eta bestela, 2016ko aurrekontuari txertatuko zaio asmoa.

en la posibilidad de los que los plenos se retransmitiesen.
Añade que en cuanto al tema de la transparencia, no han tenido inconveniente en dar todos los datos que hagan falta.
Es verdad, continúa, que en la anterior corporación no veían la retransmisión de los plenos como medida de transparencia, ya que entendían que había otras medidas mucho más urgentes, pues los plenos son públicos, que tienen sus actas públicas, y de lo que se trata ahora es de que sean más cercanos con estas herramientas; pero transparentes, son.

Finaliza afirmando que su Grupo votará a favor, y que si se puede hacer este mismo año, se hará, y si no, que se incorporará al presupuesto de 2016.

Mozioa botazioan jarrita, etorri diren guztiek, aho batez, ontzat eman dute.

Sometido a votación la moción se aprueba por unanimidad de los/as Sres/as. asistentes.

6. ATALA

EAJ-PNV Udal Taldeak aurkeztu duen mozioa, Arraten, Eibarko pertsona baten kontra botatako pasquinen inguruan.

Honako mozio hau irakurri da:

PUNTO 6º

Moción presentada por el Grupo Eibarko EAJ-PNV sobre pasquines repartidos en Arrate contra una persona de Eibar.

Se da lectura a la siguiente moción:

“Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako MOZIO hau aurkezten du Bilkuran eztabaidatu eta bozkatu dadin, Arraten eibartar baten aurka agertutako paskinak direla-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Iragan irailaren 7an eta 8an Arrateko hainbat gunetan kartelak eta pegatinak hedatu ziren, Adegin lan egiten duen Eibarko pertsona bat irainduz eta bere izen-abizenekin batera argazkia ere erakutsiz. Ez da lehen aldia persona hau mehatxatu, hertsatu eta publikoki iraintzen dutena bere bizitza pribatuari ez dagozkion gaiei helduz. Izan ere, azken urteotan bere datu pertsonalak jasotzen zituzten paskinen buzoiratzeak zein enkarteladak pairatu ditu. Eibarko Udalak, eibartarrengandik gertuen dagoen erakunde publiko gisa, ezin du beste alde batera begiratu horrelako ekintza justifikaezinen aurrean. Horregatik guztiagatik, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak honako Mozio hau aurkezten du.

MOZIOA

“El grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente MOCIÓN para su debate y votación en Pleno, sobre los pasquines repartidos en Arrate contra una persona de Eibar.

JUSTIFICACIÓN

Durante los pasados días 7 y 8 de septiembre se difundió en diferentes zonas de Arrate una serie de carteles y pegatinas ofensivas hacia una persona de Eibar que trabaja en Adegi, acusándola de “lapurra” e ilustrando dichos pasquines con una fotografía de la persona afectada. No se trata de la primera ocasión en la que esta persona se ve amenazada, coaccionada y difamada públicamente por motivos ajenos a su vida privada, ya que en los últimos años ha sufrido buzoneos de pasquines con sus datos personales, carteles, etc. El Ayuntamiento de Eibar, como institución pública más cercana a los eibarreses y eibarresas, no debe mirar a otro lado ante este tipo de actuaciones injustificables. Por todo ello, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presenta la siguiente Moción.

MOCIÓN

1. Eibarko Udalak bere elkartasuna adierazten dio kaltetutako pertsonari, bere senideei eta gertukoenei, azken Arrateko jaietan bere izen-deitura eta argazkiz hornituta banatutako paskinak direla-eta.

1. El Ayuntamiento de Eibar muestra su solidaridad a la persona afectada así como a su familia y su entorno más próximo por los pasquines repartidos durante las pasadas fiestas de Arrate con su nombre y fotografía.

2. Eibarko Udalak baztertu egiten du arazo sozial, politiko edo lanekoak baliatuz egindako edozen ekintza baldin eta berau saiatzen baldin bada pertsonak uzkurtzen, bortxatzen edo beldurtzen. Indar osoz gaitzesten du anonimotasunez paskin horiek banatu dituztenen krudelkeria. Horrelako ekintzek inoiz ez zuten lekurik izan behar eta iragana dakarte gogora.

2. El Ayuntamiento de Eibar rechaza toda acción que por conflictos políticos, sociales o laborales trate de amedrentar, coaccionar y atemorizar a personas, por lo que muestra su más enérgica condena a la crueldad de quienes desde el anonimato han repartido unos pasquines que nunca debían habertenido cabida, y tampoco se corresponden a los tiempos actuales.

3. Eibarko Udalak ekintzaren arduradunei eskatzen die Eibarko herriko persona baten aurkako eraso horiek bertan behera utz ditzatela, demokraziaren aurkako metodo iraingarri horiek atzean utziz.

3. El Ayuntamiento de Eibar insta a las personas responsables de acosar de esa manera a una persona de la ciudad de Eibar a dejar atrás este tipo de métodos antidemocráticos y humillantes.

4. Eibarko Udalak dei egiten die eibartar guztiei horrelako ekintzak salatu ditzaten, Eibarko Hiria osatzen dugun pertsona guztion arteko elkarbizitza ahalbidetze aldera."

4. El Ayuntamiento de Eibar hace un llamamiento a todos los eibarreses y eibarresas a denunciar este tipo de actos, al objeto de favorecer la convivencia entre todas las personas que componemos la Ciudad de Eibar."

Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du Euskal Herriko jaietan ohikoa izaten dela kritika soziala eta politikoa egitea, eta

Interviene el señor Mendicute quien afirma que es usual en las fiestas de Euskal Herria hacer crítica social y

bakotxak badakiela non eta nola defendatu behar dituen bere ideiak, eta horretan beraiek ez direla sartuko. Era berean, pertsona orok duela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak jasotzen duen iritzi-askatasuna eta adierazteko askatasuna izateko eskubidea, eta ordezkari politikoek badakitela eskubide hori babesten eta defendatzen.

política, y que cada uno sabe dónde y cómo defender sus ideas, en lo que no se van a meter; que asímismo toda persona tiene derecho a la libertad de opinión y expresión que recoge la Declaración Universal de Derechos Humanos, y los representantes políticos saben proteger y defender este derecho.

Arrateko jaietan, darrai, eranskailu batzuk azaldu ziren, eta pertsona baten aurpegia zeukaten, izen-abizenekin, eta zoritxarrez ez da hori gertatzen den lehenengo aldiz, beste batzuetan ere pertsona horren kontrako kartelak azaldu zirelako. Eta ez bakarrik hori: pertsona horren datu pribatuak ere buzoneatu egin ziren.

En las fiestas de Arrate, prosigue, aparecieron unas pegatinas en las que se veía la cara de una persona con su nombre y apellidos, y por desgracia, no es la primera vez; pues en otras ocasiones aparecieron carteles en contra de esta persona y de otras, y además se buzonearon los datos privados de esta persona.

Mendicute jaunak segitu du esaten, udal ordezkariek, gertaera horien aurrean, ezin dutela beste alde batera begiratu, eta horregatik ekarri dutela udal osoko bilkura honetara testu bat, pertsona horren alde daudela adierazteko.

Continúa diciendo que los representantes, ante estos hechos no pueden mirar a otro lado, y que es por ello por lo que han traído a este Pleno un texto para expresar su apoyo a esta persona.

Geroxeago dio testu hori edonork har dezakeela bere gain, baina, edozein modutan ere, bere Taldeak Bozeramaileen Batzarrean duen ordezkariak esan zuen prest zegoela plantea ziezazkiokeen aldaketak sartzeko, garrantzizkoena aho batez onartzea delako.

Dice más adelante que el texto puede ser asumido por cualquiera, pero que en todo caso, el representante de su Grupo en la Junta de Portavoces expresó su disposición a introducir modificaciones que pudieran plantearse, porque lo importante es que se apruebe por unanimi-

dad.

Bere proposamenak, dio Mendicute jaunak, lau puntu hauek ditu, eta Udalak

1) Elkartasuna adierazten dio pertsona horri.
2) Gertakari hori salatu egiten du.
3) Ekintza horren erantzuleei kritika egiteko beste bide batzuk bilatzeko eskatzen die.
4) Hiritarrei dei egiten die horrelako gauzak salatu ditzaten.

Su propuesta, prosigue, tiene los siguientes cuatro puntos, donde el Ayuntamiento:

1º) Muestra la solidaridad con esta persona.
2º) Denuncia la actuación habida.
3º) Solicita a los responsables de esta acción que busquen otros caminos para hacer críticas.
4º) Hace un llamamiento a los ciudadanos y ciudadanas para que denuncien estas actuaciones.

Amaitzeko Mendicute jaunak esan du gainerako Talde guztien babesa jasotzea espero dutela, ez dutelako beste testurik jaso.

Finaliza afirmando que esperan el apoyo de los demás grupos, ya que no han recibido un texto alternativo.

Ondoren Lamarain andreak hartu du hitza. Esaten du, bere iritziz, gertaera hau langileen eta Adegiren arteko gatazkaren ondorio dela, eta bat etor daitezkeela Udalak Eibarko hiritar bati elkartasuna eta babesa adierazte horrekin, baina ezin diotela babesik erakutsi Adegiko arduradun bati.

Interviene a continuación la señora Lamarain quien afirma que creen que esto es una consecuencia del conflicto entre trabajadores y Adegi, y que están de acuerdo en que el Ayuntamiento puede mostrar la solidaridad y apoyo con un ciudadano de Eibar; pero que consideran que no pueden mostrar su apoyo a un responsable de Adegi.

Kontuan hartu behar da, dio Lamarain andreak, Gipuzko langileen % 90 baino gehiago daudela Hitzarmen barik; eta Adegi dela neurri hori aplikatzen ari dena,

Hay que tener en cuenta, prosigue, que en Gipuzkoa más del 90% de los trabajadores está sin Convenio, que es Adegi el que aplica esta medida, y que como

eta Hitzarmenik ez izatera, langileen lan-baldintzak gutxitu egin direla.

Gaineratzen du neurri horren ondorioz, milaka gipuzkoarren bizitza pribatua aldatu eta bere Taldearendako horixe bai dela salatzekoa.

Lamarain andreak jarraitu du esaten pertsona asko direla, lanean aritu arren, pobrezian bizi direnak; lana prekarizatzen ari dela eta baita pertsonen bizimodu pribatua ere. Ezin da ahaztu, dio, Eibarren 2200 bihargin inguru daudela lanik gabe, eta beste asko, lanean ibili arren, egoera prekarioan bizi direla, eta horrek baduela arduradun bat, bere Taldearentzat argi eta garbi dagoena: Adegi. Horren aurrean, Lamarain andreak dio beraiek egoera horretan dauden langileekin egiten dutela bat.

Eta amaitzeko, dio, Bozeramaileen Batzarrean esan zuen bezala, mozio honek balioa ematen diola estatuko “mordaza” legeari eta hori dena kontuan hartuta, bere Taldea abstenitu egingo da.

García Antón jaunak hartu du ondoren hitza. Esaten du bere Taldeak elkartasun osoa erakutsi nahi diola pertsona horri giza-pertsona gisa, baina beraien ustez

consecuencia de no tener convenio los trabajadores tienen mermadas sus condiciones laborales.

Añade que por esta medida, la vida y las condiciones de miles de guipuzcoanos y guipuzcoanas han cambiado y que esto para su Grupo sí que es denunciable.

Continúa en su intervención diciendo que hay muchas personas que aún estando trabajando viven en la pobreza, que se está precarizando el trabajo y también la vida privada de las personas, y no se puede olvidar que son aproximadamente 2200 trabajadores los que en Eibar están sin trabajo, y muchos más los que aún trabajando, están en precario, y que consideran que hay un responsable de esto, que para su Grupo es claramente Adegi; por lo que ellos apoyan a los trabajadores que están en esta situación.

Finaliza afirmando que ya expresaron en la Junta de Portavoces que ésta moción se puede asimilar a la Ley “mordaza” del Estado; y que por todo lo dicho, su Grupo se abstendrá.

El señor García Anton interviene a continuación para decir que su Grupo muestra toda su solidaridad con esta persona como persona humana, pero que les

Adegikoak esplotatzaile koadrilla bat direla. Horregatik, pertsona horri bere elkartasuna adierazi nahi dio baina ez erakundeari; erakunde horrek ez diolako inongo mesederik egiten bihargin klaseari, eta ekonomia herri honetan dagoen egoera ren erruduna, neurri batean, erakunde hori dela.

parece que Adegi son una panda de explotadores, por lo que muestra su solidaridad con la persona, pero no con esta institución; que no esta haciendo ningún favor a la clase trabajadora, y que en parte es culpable de cómo está la economía en este país.

Alkate jaunak dio bere Taldeak mozioaren aldeko botoa emango duela, eta ez dela ahaleginduko testuinguru bat edo berez eta izatez gaitzezteko modukoa den ekintza bati justifikazioa bilatzen, hori egingo balu horren antzeko beste edozein gauza justifikatzeko errorean eroriko litzatekeelako.

Ez dago justifikaziorik, dio Alkateak, pertsona bat horrenbesteraino estutzeko eta ahotan erabiltzeko; Udalak beti gaitzetsi ditu horrelako ekintzak, Udal honetako jende batek sufritu ditu horrelakoak, eta hortaz, badakite bidea ez dela hori, negoziazioa, manifestazioa edo greba baizik, baina ez eraso pertsonala.

El señor Alcalde afirma que su Grupo va a apoyar la moción, y que no va a intentar buscar un contexto, o una justificación a un acto que por sí mismo es reprobable; pues si hiciera eso, se caería en el error de que cualquier actuación de estas características se podría justificar.

No existe justificación, prosigue, para que se ponga en el disparadero a una persona, el Ayuntamiento siempre lo ha condenado, gentes de este Ayuntamiento lo han sufrido, y por tanto, entienden que el camino no es ese, sino la negociación, la manifestación, o la huelga; pero no el ataque personal.

Amaitzean Alkateak esan du mozio honetaz aritzeko jarri zuten baldintza bakarra pertsona kaltetu horrek Udalbatzarrean gaia tratatzeko baietza ematea izan zela, eta ematen du horrela dela; beraz, bere Taldeak onartu egingo du mozioa.

Finaliza diciendo que la única condición que pusieron para tratar esta moción fue que la persona afectada consintiera que se tratara en el pleno, y que parece que es así; por lo que su Grupo aprobará la moción.

Berriro Mendicute jaunak hartu du hitza. Aurrenik dio Talde sozialistari eskertu egiten diola mozioa aurrera ateratzeko erakutsi duen borondatea.

Gaineratzen du bere Taldeak bat egiten duela Alkate jaunak esandakoarekin, eta harrituta geratu dela giza-eskubide bat hautsi-eta egindako salaketa baten aurrean abstraziora jotzeko nolako gaitasuna dagoen ikustean, eta hori motibo politiko batzuen alde egiteagatik.

Erabili dituen berba horiek, dio Mendicute jaunak, ez zaizkio arrotz egiten ezker abertzaleari, baina berak uste zuen hori iraganeko kontu bat zela, eta beste egunean, Arraiz jaunari, iraganeko kontuak zirela esaten entzun ziotela; baina gero, egunerokoan, honelako gauzak ikusten direnean, hor ikusten da zein den benetako jarrera, hor ikusten da nork agintzen duen koalizioan.

Mendicute jaunak dio eztabaidatu daitekeela lan-baldintzen gainean; Adegiko arduradunek hartzen dituzten erabakiei buruz eztabaidatu daitekeela, eta erabaki horiek Eibarko biharginei kaltea egin diezaiekeela esan; baina hona ekarri dena, giza-eskubide baten urraketaren aurrean pertsona baten alde egitea izan dela.

Lamarain andrea –dio Mendicute jaunak- hasi da esaten Adegiren eta langileen

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien en primer lugar agradece al grupo Socialista la voluntad de sacar adelante la moción.

Añade que su Grupo suscribe las palabras dichas por el señor Alcalde, y que le sorprende la capacidad de abstracción ante una denuncia de una vulneración de un derecho humano, para defender unos motivos políticos.

Estas palabras, prosigue, no son ajenas a la izquierda abertzale, pero pensaba que era cosa del pasado, y el otro día al señor Arraiz se le oyó decir que son cosas del pasado; pero luego, cuando en el día a día, se ven estas cosas; se ve cuál es la verdadera actitud, y quién manda en la coalición.

Prosigue diciendo que se puede discutir sobre las condiciones laborales, se puede debatir sobre las decisiones que adoptan los responsables de Adegi, y cómo las mismas pueden perjudicar a los trabajadores eibarreses, pero que lo que se ha traído es el apoyo ante la vulneración de un derecho humano.

La señora Lamarain, continúa, ha comenzado diciendo que es una consecu-

arteko borrokaren ondorio bat dela; Alkate jaunak beste pertsona batzuk ere aipatu ditu, batzuk gatazka baten ondoriozkotzat hartzen duten zer harengatik ere sufritu dutenak. Baina denok dakigu –dio Mendicute jaunak- hori ez dela izan gatazka baten ondorio, inposatutako kultura politiko baten ondorena baizik, eta kultura politika hori duenak, ideia politikoak eta eskubide-urraketak aurrera eraman ditzake, gauza bakarra balitz bezala.

Hori dena ez zaio arrotza suertatuko ezker abertzaleari –dio Mendicute jaunak aldizkari bat eskuetan duela-, buzoietan sartu zuten aldizkariaren kontrazalean bozeramaile bat dagoelako, eta bozeramailearen azpian gaur hizpide dugun hiritar andre horren kontra erabilitako berba berbera, "lapurrak", eta, hain zuzen ere, hemengo zinegotzi izan ziren Benjamin Atutxa eta Carmen Larrañaga jaun/andreen kontra, baita Carlos Gonzalezen kontra ere.

Jokabide horiek -dio amaitzean-, arrazoibidea zein delarik ere, beti izan dira, dira eta izango dira salatzeko modukoak; oraindik ezker abertzaleari bide luzea geratzen zaio egiteko.

encia de la lucha entre Adegi y los trabajadores, y el señor Alcalde ha mencionado a otras personas que también han sufrido por algo que también algunos entendían consecuencia de un conflicto; pero que ya se sabe que no es consecuencia de un conflicto; sino consecuencia de una cultura política impuesta, y el que entiende esa cultura política puede llevar adelante las ideas políticas y la vulneración de derecho, como un todo.

Todo esto no les será extraño a la izquierda abertzale, dice, a la par que muestra una revista, pues en la revista que buzonearon, en su contraportada, hay una portavoz y debajo de la portavoz, las mismas palabras, "lapurrak"; que se han dicho contra esta ciudadana, y en concreto contra los que fueron concejales Benjamin Atuxa y Carmen Larrañaga, así como contra Carlos González.

Estas actuaciones, concluye, cualquiera que fuera su motivación son, han sido y serán siempre denunciables, y todavía la izquierda abertzale tiene un largo camino por hacer.

Lamarain andreak dio berak hauxe esan duela: gertatutakoa beharginen eta Adegiren artean dagoen gatazkaren ondorioa dela; bere ustez gauza batzuk ezin dira bata bestearekin konparatu, ez direlako berdinak, eta azpimarratu izan duen be-

Afirma la señora Lamarian que ella ha dicho que esto es una consecuencia del conflicto entre los trabajadores y Adegi, que cree que hay cosas que no se pueden comparar porque no son iguales, y como ha resaltado, son cuestiones de

zala, beste garai bateko kontuak dira; mozioan erabilitako hizkuntza ere beste sasoi edo garai batekoa den bezala.

Aurrera begiratu behar da, dio Lamarain andreak, baina denok, eta aurrera begiratzeko borondatea eduki behar da. Esaten du eztabaida urrunegi eraman dela eta memento honetan bidezkoak ez diren gauzak ekarri direla hizpidera, eta berak behintzat nahiko garbi duela, une hauetan PNVak ez duela borondate hori.

Aipatu da –dio- eranskailuetan "lapurrak" jartzen zuela, baina Hitzarmenaren aipamena ere jasotzen zen eta horrelakorik ez da aipatu hemen; eta edozein modutan ere "lapurrak" hori Adegirentzat izango zela, ez pertsona horrentzat.

Gaineratzen du hutsegite bat izango litzatekeela langileei elkartasunik ez erakustea. Eta giza-eskubideez egiten bada berba –dio Lamarain andreak- hitzarmenik gabe dauden Gipuzkoako beharginen eskubide-urraketaz ere berba egin beharko litzatekeela.

Amaitzeko esan du, noski, langileen lanegoera eta Adegirena ere ekarri daitezkeela hona eztabaidatzeko; gai horiek ekarri egingo dituztela hona eta orduan ikusiko dela Talde bakoitzak nora jotzen duen.

otro tiempo; considerando también que el lenguaje utilizado en la moción son también cosas de otro tiempo.

Añade que hay que mirar adelante, pero todos, y que para mirar adelante hay que tener voluntad, que la discusión ha ido muy lejos y que se han traído a colación cuestiones que no proceden en este momento, y que tiene bastante claro que en estos momentos el PNV no tiene esta voluntad.

Se ha mencionado, continúa, que en las pegatinas se recogía "lapurrak", pero también se recogía la mención al Convenio, y eso no se ha mencionado; y en todo caso "lapurrak" sería para Adegi y no para la persona.

Añade que sería un error no mostrar apoyo a los trabajadores, y que si se habla de derechos humanos, también hay que mencionar la vulneración de los derechos de los trabajadores y trabajadoras de Gipuzkoa que están sin convenio.

Concluye su intervención diciendo que por supuesto que se puede traer a debate la situación laboral de los trabajadores y de Adegi, que al efecto traerán estos temas y entonces se verá la posición de cada Grupo.

Alkate jaunak adierazi du bere iritziz mozioa behar bestean eztabaidatu denez, bozketara joko dela.

Manifiesta el señor Alcalde que considera ya suficientemente debatida la moción, por lo que procedería su votación.

Mozioa botaziopean jarrita, onartu egin da. Hona hemen emaitza:

Sometida a votación la moción, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

7. ATALA Galderak eta erreguak.

PUNTO 7º Ruegos y Preguntas.

- Ibañez andrearena. Esan du hilabete bakoitzaren hirugarren eta laugarren astelehenetan egiten direla Batzordeetako bilerak, eta gertatzen dena da, batzuetan, bilera batak bestea teilakatzen duela, eta batzuk bilera bat baino gehiago izaten

- La de la señora Ibañez diciendo que los últimos tercero y cuarto lunes de cada mes se celebran las reuniones de las comisiones, y ocurre que a veces se solapan unas con otras, de tal manera que a algunos les coinciden y no pueden

dituztenez, ezin dutela denetara joan.
Gaineratzen du bere Taldearen iritziz, gauzak zuzen eta ganoraz egiteko, aztertu egin beharko litzateke bilera horiek egiteko modua nola antolatu daitekeen hobeto, honek ez dezan hartu “Marx anaien ganbara”, zinegotziak bileratik bilerara sartzen eta irteten ibil ez daitezen. Gaineratzen du, bere iritziz, teknikariek, astelehenaz aparte, batzordeak egiteko beste egun bat jar dezaketela.

Alkate jaunak dio, bera oker ez badabil behintzat, agintaldi hasieran batzorde bakoitzak aurretik zuen bilera-eguna izaten segitzekotan geratu zirela eta gero erabakiko zutela eguna eta ordua noiz ipini.
Gaineratzen du hala dela, astelehenetan batzorde-pilaketa izaten dela teknikariak daudela aprobetxatzeko, baina beste edozein egunetan jarri behar badira bilerak, Batzorde bakoitzak erabakiko du, batzordekideek noiz ahal duten bildu ikusita, Udalbatza ez delako izaten ordutegiak edo egunak finkatzen dituena. Alkateak dio egingo duela berba batzordeburuekin gaia atera dezaten.

- García-Antón jaunarena, Eibar futbol taldeari emandako laguntza, publizitatearena, justifikatzen zuen txostena Eibarko

asistir a a todas.
Añade que su Grupo cree que por el buen orden y concierto, habría que analizar cómo organizar mejor la celebración de dichas reuniones, de forma que no parezca esto el “camarote de los hermanos Marx” entrando y saliendo concejales de las comisiones; y añade que entiende que los técnicos, aparte de los lunes, pueden hacer otro día las comisiones.

Afirma el señor Alcalde que, si no está equivocado, al comienzo del mandato de la coroporación se dijo que cada comisión siguiese con el horario de antes, y que luego decidirían su hora y día.
Añade que es verdad que los lunes hay una aglomeración para aprovechar la asistencia de los técnicos, pero que si tiene que ser cualquier otro día, cada Comisión según sus componentes y disponibilidades decidirá, porque el pleno no fija los horarios; y que ya hablará con los presidentes para que planteen el tema.

- La del García-Anton solicitando que se inserte en la página web el informe que justificaba la publicidad con el Eibar.

Udalaren web-orrian eskegitzea eskatzen.

Alkate jaunak dio txostena web-orrian eskegiko dutela.

Afirma el señor Alcalde que colgarán el informe en la página web.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta gaueko bederatziak hogei gutxi izanik, Alkate jaunak bilerari amaiera eman dio, guzti honetaz, nik Idazkari Orokor naizen honek, fede ematen dudalarik.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas cuarenta minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.